



Gaur egungo errealitate ezberdinak, biharko amets berbera. Testu labur honen bidez, erakutsi nahi izan dut Iparraldeko egoera soziolinguistikoa eta juridikoa ezberdinak direla Ipar eta Hego Euskal Herrian. Hegoaldean eguneroko bizian “normalak” bihurtu diren gauzatxo asko Iparraldean oraindik amesten ditugu. Halere, Hegoaldea eredutzat hartuz eta mugazgandiko lankidetzaz sendotuz, gure bidea egiten ari gara, urratsez urrats, euskararen presentzia areagotuz. Eskutik helduta, elkarrekin jarrai dezagun euskaraz bizi den Euskal Herri bat eraikitzen!

Giltza-hitzak: Euskara. Etorrizuna. Soziolinguistika. Amets. Gazte.

I had a dream... Amets bat egin dut...

2040ko otsailaren 2an gaude, Hazpainen, Lapurdin. Goizeko 7ak dira. Gaur, ene urtebetetzea da. 48 urte bete ditut, denbora oso azkar pasatzen da.

Goizero bezala, nire iratzargailuaren irratia pizten dut. Iparraldeko lehen irratia publikoa osoki euskaraz entzuten dut

Albisteak dira:

- Nazioarte mailan: Europar Batasunak, 2020 hamarkadan bizi izan dituen mehatxuen ondotik (alderdi extremistak), orri bat itzuli du eta Eskualdeen Europa bilakatu da. Bere hizkuntza gutxituen Karta izenpetu du, hizkuntza hauei eskubide minimo batzuk bermatuz. Herrialde guztiek onartu dute. Baina Frantzia, neurri hori bultzatu duena, urrunago joan da: jada tokiko hizkuntzen ko-ofizialtasuna aldarrikatu zuen 2027an.
- Frantziak erabaki du, bere ospe kulturala kulturantzatasunean oinarritu behar dela. Horretarako, mundu osoan dituen zentro kulturaletan eta anbasadetan, tokiko hizkuntzen erakaspenean segurtatua izanen zela. Ondorioz, bereziki Hego Amerikan eta Estatu Batuetan, euskara klaseak biderkatu dira (zaila da eskaerari

erantzutea, diasporako gazte guztiek euskara berreskuratu nahi dute, erakasle asko harat igorri behar dira). Horri buruz, Nazio Batuen erakundeak proposatuko du Diasporako hizkuntzen Karta bat izenpetzea. Euskara bilakatuko da mundo mailako hizkuntza garrantzitsu bat.

- Azken albisteak: Euskal Herrian, denden %70ak euskara zertifikazioa lortu dute. EEP-k proposatzen dituen euskara ikasteko formakuntza profesionalak (arlotan) erangintzen dira.

Irratia itzaltzen dut, prestatu behar naiz lanera joateko.

Nire semea, Eneko, 15 urte, lizeo publikora joaten da, dena euskaraz egiten du, Baxoan ere bai. Murgiltze ereduak biderkatzen, eskola publikoetan eta pribatuetan ere. Irakasle elebidun eskas handia ezagutu du Iparraldeak, horretarako, 2020 hamarkadan garatu ziren “Eskola Futura” bezalako proiektuak instituzionalizatu dira, mugazgandiko akordio berri batzuen bidez: gaurregun, irakaskuntza master guzietako ikasleei proposatua zaie urte bat Hegoaldean egitea, haien euskara maila hobetzeko eta ondotik euskaraz irakasteko. Eta bestalde, Hegoaldeko irakasleek Iparraldean irakas dezakete arazorik gabe, tramiteak errestratu izan direlako (ez naiz xeetasunetan sartuko). Izan ere, gobernu berriek erabaki dute elebiduntasuna azkartu behar zela, aberastasun pertsonalarentzako oso ona zelako. Gaur egungo gazteak, Ipar Europako herrialdeetan bezala, hirueledunak edo laueledunak dira arazorik gabe.

Nire araba, Luisa, 20 urte, fakultatera doa. Zientziak ikasten ditu Donostian. Mugazgandiko hitzarmenak, EB-k bultzaturik, biderkatu eta azkartu dira, batez ere hezkuntzari dagokionez. Izan ere, gaurregun, Iparraldeko 2/3ak Hegoaldera doaz haien ikasketen egitera, euskaraz, baita ere espainiolez. Haien arlo profesionalen hizkuntza gaitasunak hobetzeko.

Etiketaz ateratzen naiz eta nire auzoak kurutzatzen ditut, denboraz hitz egiten dugu, euskaraz. Harrigarria da zenbat lan egin izan den euskararen erabilerrari buruz. Euskaraz hitz egitea gauza natural bat bilakatu da. Gogoratzen naiz, Euskaraldiaren lehen edizioan, 2018an, estrés linguistikoaren aurka borrokatzen ginen. Pixkanaka pixkanaka, euskaraz aritzea, batez ere Iparraldean, moda bat bilakatu da (“moda” zentzu onean, botere publikoek eta elkarteek bultzaturik, jendea naturalki ohartu baita euskararen erabilpenaren

onureta ez naiz xeetasunetan sartuko—). Eta gaurregun, urte askoren buruan, erreflexo bat bihurtu da. → ekitaldi puntualak zirenak instituzionalizatu dira eta euskara erabiltzeko uneak eta tokiak biderkatu egin dira. Ondorioz, 2036ko inkesta soziolinguistikoak erakusten duen bezala, erabilera azkarki emendatu da azken urte hauetan.

Banoa lan egitera, Administrazioan lan egiten dut. Elkargoaren kompetentziak askoz emendatu dira gaurregun. Baina interesgarria dena da azpimarratzea sail bakoitzean, euskara teknikariak, itzultzaileak edo mugaz gandiko adituak badirela. Izan ere, politika bakoitza ezin da imajinatu euskararik Gabe edo mugazgandiko ikuspegiak Gabe. Bi elementu hauek politika bakoitzari integratuz, euskarak aitzinamendu handi bat ezagutu du Iparraldean.

EEP-ren errola aldatu da. Instituzio handia bilakatu da, gaurregun 60 langile baditu. Lurralde elkargo guziekin harreman ertsietan dago, Izan ere, ofizialtasuna aitzin, euskarari buruzko politikak zentratzen ziren legeriaren hutsuneetan. Erran nahi baita, luzaz, euskara legeriak debekatzen ez zituen guneeetan sartzen zen. Gaurregun alderantziz da: lege ezberdinei esker, hots paradigma aldaketa horri esker, euskara bizi publikoan gero eta presenteago da.

Iratzargailua pizten da, nire ametsetatik ateratzen naiz. 2018ko urriaren 19an. Ohituran bezala, 20 urteren buruan izango den Iparraldeaz amestu dut.

Igual Euskadiko biztanle batentzako, aipatu izan ditudan elementu askok normalak dirudite. Baina, guk, Iparraldean, oraindik ametsetan dauzkagu. Ametsek aitzinarazten gaituzte. Egin behar dugun bidea oso luzea da oraindik. Baina, pixkanaka pixkanaka, urratsez urrats, aurreratzen gara, eta egun batez, ezina ekinez egiten dugu.